

euskerarentzat. Erria, erria! Erri nekazariak ez du batere irakurtzen (eunetatik batek?), bestela Ipar-Amerikan, esaterako idazleek milloika aleak atera bearko litukete. Erri irakurleak bi dauzkagu gaur: matxinada aurrekoa ta ondorekoa. Nik erri nekazariarentzat poema ta Santa Kruz apaiza ditut egiñak. Beste liburuak erri irakurlearentzat, lengoarentzat; orain irugarren irakurle-mota etorri zaigu, ark aiña ez dakiña ta eskatzen ez duna. Alare, oraingo gaztediaren berotasuna ikusirik, esan liteke gure lengo erri ikasiaren einara igoko dala. Urrengo nere liburua guzientzat izango da, Jainkoak onez, baiñan ez uste izan nik atzera egingo dudarik. Geiago eskatzen diguteneri geiago eman be-ar diegu.

Gausa geiegi datozkit burura karta baterako, ta bukatsera noa. Jainkoak ongi bagaitu, luzeago itzegingo dugu.

Oraingoz, etsi esazute erantzun labur onekin.

Ormaetxea'r Nikola.

(ORIXE)

ZUMAIA'R batena.

..... Euskera pizkundearen zutarririk bikaiñenetakoa egiz, zuek argitara berri dezuten aldizkari ausarta. Irarlantegiko ekatsak itxusitzen dutelarik, tamalez, eta irakurtzea zailagotzen...

Ikasle, apaiz, da orotariko jakitunen artean be-ronen zsbalketa alik eta edatuena egiten saiatu bear orain, Euskera ia-galduaren burujasoketarako biderik egokienetakoa dugun ezkerero.

Cure aldi bateko "KARDABERAZ" gazteizatzen len-umearen ondorengo mardula auxe. Bejondaiolaf Idazle berriak sortu, trebetu, citu, alkartu, ta bide batez Euskera landu, gaitu, arlogaitz bideetan barrena bultzatuz, ori lanaren bearra ta ederra! "Ave Fenix"en antzera, gure ele zarra il-ondakiñetatik berpiztera ote dijoakigun susmo ernagarri bat barruratu zaigu.

Gaurko egoera makurrean, Aitagurea edo Gure Aita esan, txikerkeri (Bizantinismo) utsa deritzait. Arako bestearen... "que si galgos, que si podencos"... ura zait batetan gogora. Guztiok euskeraz otoizkera zarrean baixe saiatuko bagina, gaitzerdi.

Beste iru euskal aldizkariak ba-dute laugarren nai, ta mamiz da jantziz aundikitar gainera. Sarbiderik alegikorrena damoiogun biotzez, euskal saill etze-gorriak urrituaz, igali-baratz ta lore landak ugaltzera datorkigun morrosko gazteari. Ongi etorri bada, ta Jainkoak dio bizi luse ta oparoa!

Eta... pakearen alde "Aitagure" bat.

---

" YAKIN ".-

Mardula sortu zaigu gure aldizkari berri au, Arantzazu'n egiña. Bigarren zenbakiaren "Ataria"n : "Elkartzen ari gera euskal-apaiz eta prailegaioek", diñote. "Alkartasuna!"-ren billa; onela, lan ohea burutzeko asmotan, alegia.

Praile-adar batzuetako gazteak eta apaizgaiak ere gogozko oldar sutuan, gure euskal-zugatzen altxumatu ta loratzen ari zaizkigunak; arnari yoriak uzta eder datorreneko. Gora itxaropena!

Bigarren eta irugarren zenbakiak eskuetaratu zaizkigu. Bietan goieneko gaiak ikusten ditugu erraz erabiliak, beren lenengo sailletan batez ere: "Teoloji-sailla" ta "Filosofi-sailla". Beste lau saillekin buruturik geratzen da gure aldizkari bikain au: "Kultur-sailla", "Antze ta Elerti", "Saski-Naski" ta "Elkar-Izketa".

Gai sakon oietan sartzen diran lan mamitsuak dirala-ta, lendabiziko bi sailletan batez ere, berealaxe oartu bear gai bakoitzerako peitzen diran itz bereziak; berezi ta esan-nai bakoitzerako egokiak izan ditezenak.